

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA



ENDA LUR

n a r r a t i b a .
e r e i n

Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko

adaburu zuhaitzen kukula	Zuzi erraldoi bihurtuta [...] haien islak gorritz tindatzen zuen mahastiz jositako lurra eta udazkenaren okre koloreko haritzen adaburu hostotsuak.	35
adeitsu begirunezkoa	Suaren argitan, aurpegi adeitsu bat ikusi zuen kolore iluneko zapi batek inguratua, gaztaina koloreko ile xerloak agerian zituela.	180
aditu antzeaman, ulertu	...susmoa zuen Endara ere gai zela bere pentsamenduak aditzeko , horretaz ezer ez bazion ere.	157
agiraka errietan	Erantzuteko betarik eman gabe, obeditu ez izanagatik agiraka jarraitu zitzaion aita...	170
ahabia zuhaiak fruitua (<i>arándano</i>)	Zerorrek esan didazu ahabiak biltzeko garaian jaio zinela, hotza hasten denean...	55
ahal da! desio adierazpena (<i>ojalá</i>)	—Eroriko ahal da Okabako harkaitz sakratua haien gainera...	57
ahaltsu boteretsua	Gizon guztiek zuten ahuldaderen bat eta, batzuetan, garrantzizkoa zen ahuldade hori ezagutzea; arma ahaltsua zen arerioarentzat.	192
ahapeka isilean, xuxurlaka	“Sorgin” hitza aditzen zen tarteka, ahapeka esanik; baina inortxo ere ez zen ausartzen hitz hura ozen esatera...	13
ahi orea, morokila	Erhek egurrezko gopor bat eman zion olo ahiz beterik, eta egur ogi zati bero bat.	59
aho ertz zorrotza <i>filo</i>	Azkenean, erraldoiak pieza leuntzeari utzi, <i>garta</i> -ren ahoa urez garbitu	
aho-oztopoka hitzak trabatuta	—Zu geratzen zara —esan zuen, aho-oztopoka , ahaleginak akituta—. Zu zara azkena...	113
ahur esku barrua	...kilima gogaikarri batzuk sumatu zituen esku ahurretan ...	167
aiztoa ganibeta	...hogeita hamar urratsera jarritako itu batean aiztoa sartzeko gai zen bedostar basati hura aurrez aurre zuela...	225
akitu oso nekatuta, unatuta	—Zu geratzen zara —esan zuen, aho-oztopoka, ahaleginak akituta —. Zu zara azkena...	113
akuilatu ezproina sartu, ziztatu	Garrek zaldia akuilatu eta burua jiratu zuen.	222
alajaina (indargarria) bai / ez horixe!	Garai onean bururatu itzaion haren gordezuloan sartzea, alajaina!	215
anfitrioi harrera edo abegi egilea	...eskertu dezagun eskaini zaigun aterpea, eta ohoratu gure anfitrioiak —jarraitu zuen...	116
anil urdin bizia (hormetar / arrop tind	...hormak anilez margoturik zeuden...	119
antze arte, trebetasuna	...gaztea artean, baina ordurako trebea gizonari atsegin emateko antzean ...	252
arao egin konjuratu, hitz magikoak bota	Hitz batzuk ere esan ohi zituen hizkuntza ezezagun batean, zantzu txarren bati arao egin bezala...	83
arbuia baztertu, diskriminatu, gutxietsi	Baina bazuen jakin-mina amak berak arbuia seme hura ezagutzeko, ez baitzen hura batere ohiko gauza Endan.	277
arerio etsaia	...Baladaste zen une hartan indartsuena, eta bazekien arerioaren nagusitasuna aitortzen.	244
arlote zarpaila, trauskila	Arlote baten modura jantzita ibili eta egun osoa aterperik eman gabe...	13
arpilatu harrapakatu, sakeatu	...harik eta duxak agindu zuen arte eraso eteteko eta hasteko hiria arpilatu , etxez etxe, dorrez dorre.	37
artean oraindik (lehenald)	Gorpuak hartu eta herrira eramatera zihoala, ordea, ohartu zen alaba bizirik zela artean .	12

artegagarri kezkagarria, arduratzekoa	...baina bazuen zerbait bitxia toki hark: isiltasuna, isiltasun artegagarri bat. Ez zen aditzen hegaztien karrankarik ere...	253
artzakur zakurra, <i>mastín</i>	...kezkatuago zegoen bere parean zihoazen artzakurrak zaintzen.	138
asko jota gehienez ere	Abereak eta negurako gordetako janari hornigaiak lapurtuko zizkieten, asko jota ...	97
astakirten artaburua, astapotroa	Zer zebilen astakirten hura inbaditzaileekin?	373
atezuan tentsioan, arreta bizian	Egun osoan aditu ziren deiadarrak, baita gauean ere, eta atezuan jarri zuen Ilene Mendi edo Ilargiko Mendien isurialde bietako herritarrak.	23
atontu prestatu, antolatu	...eta behartu zituzten armak sarreran uztera, horretarako bereziki atontutako gordailu batean...	273
auhen min oihua, erosta, aienea	...artzainik gabe noraezean ibiliko artaldeak, eta auhen triste batek zeharkatuko du Enda Lur osoa.	280
aurrenekoz lehenbizikoz, lehenengoz	Zuzi erraldoi bihurtuta zeuden lehen zeruraino heltzen ziren dorre-orratzak, aurrenekoz ikusten zituenari harridura eta mirespena eragiten zieten haiek...	35
azkon lantza txikia, jaurtigarria	...izan ere, maisutasunez erabiltzen zuen azkona , nahiz eta oso gustura hartuko zuen ezpata berria bat.	26
azkonar ugaztun haragijalea (<i>tejón</i>)	...hala ere, lepezuriak, azkonarrak eta basurderen bat besterik ez zuten harrapatzen gehienetan.	47
azpil tolestura	...odolez zituen aurpegia eta ilea; zaurituta eskuin masaila, azpil brodatuz apaindutako oihal bikainezko atorra ugerdo; prakak piltzartuta.	37
basoilar hegazti handia (<i>urogallo</i>)	— Basoilarren kantua entzunez gero, bilatu aterpea berehala –gomendatu zieten...	154
bazka (animalien) janaria	...Beilak pentsatu zuen lapurretageak zirelakoan utzi zituztela txerritegi hartan erdi hilik, arratoien bazkarako .	287
begiak bildu lo egin	...burua astindu zuen, pixka bat bizkortzeko, egun eta erdi baitzeraman begirik bildu gabe.	42
begiratu ilun begirakunea, adikunea	...ezin ahaztu orduko ilargi odolez gorria, ama haurra erditzean hil izana, haurraren begiratu iluna .	13
behatz oinetako hatza	Goseak zeuden, eta halako hotza egiten zuen, behatzak eta sudurra izoztu eta erauzi behar izateko arriskua baitzuten.	178
behatz kriskitin atzamarren klaska	... behatz kriskitin bat egin, eta haren esana betetzen zuten denek.	135
behor zaldi emea (<i>yegua</i>)	...ez zegoen inor, behor zuri eder bat besterik ez, berak sekula begi bistan ikusitako zaldirik bikainena.	19
bekorotz likitsak! behi gorotz nazkagarriak!	— Biarnotarrak gure etsaiak dira! Bekorotz likitsak! Ez naiz joango...	32
bekozkoa jarri bekokia zimurtu	Buruzagiak zaldia geldiarazi, eta bekozkoa jarri zuen.	60
belagile aztia	Eta non demontre zegoen bera horrela sorgindu zuen belagile madarikatu hura?	200
bermatu finkatu, apoiatu	Ez, ezinezkoa zen begiak itxita eta besoa bere sorbaldan bermatuta lo zegoen neskatxa hura... sorgina izatea?	149
beta aukera	Erantzuteko betarik eman gabe, obeditu ez izanagatik agiraka jarraitu zitzaion aita...	170
bihotz eman adoretu	...eginahalak eta bi egin behar zituzten erosotasunik ezari aurre egiteko, baina bihotz ematen zien, bestalde, segurtasunaren sentipenak.	115
borborka jario handian, burrustan	...zeinaren alboetatik ere borborka isurtzen baitzen su likidoa harkaitza inguratzen zuen ibaira.	261

brastakoan modu zakarrean, kolpean	Zaldia brastakoan gelditu, eta Ihabar hegan atera zen, lokatz putzu bateraino.	33
damu izan sentituta egon, nahigabea izan	Damu zuen , nolanahi ere, aitari eta bere taldeko buruari eragindako laidoagatik barkamenik eskatu ez izana.	92
demontre arraio, deabru	...beste behin ere, zer demontre ari ote ziren han, noiz eta urtzaroaren hasiera-hasieran.	254
destainari mespretxatzaile, isekari	...baina ez du merezi –entzun zion esaten, destainari , Garri.	45
dilindan zintzilik, kulunkan	...halako batean, bera airean hartu eta dilindan astintzen zuen indar bat sumatu zuen, jarraian gotorlekuaren hormen gainetik jaurtikia sentitu zen.	379
dizdiz distiratsu, ñir-ñir	Attak ez zuen oihurik egin, baina suminez dizdiz zuen begirada...	32
dohakabe koitadua, errukarria	...sarkinak ezustekoan harrapatu zituen bi dohakabe berehalakoan exekutaturazi zituen.	408
doi-doi ozta-ozta, justu-justu, nekez	Durduzatuta, doi-doi bildu zituen gazteak buruaz baietz egiteko...	218
dunda metxa	...zakuan zeramatzan suharriarekin eta dundarekin eginahalak eginda, lortu zuen halako batean adarrek su hartzea...	155
durduzatu gogoa nahastu, zalantzatan utzi	...baina gizonak ukabilkada bat jo zion eta guztiz durduzatuta utzi zuen.	49
durunda egin oihartzuna egin	Bi gazteek euskarri zuten horman durundi egin zuen zarata lehor batek esnatu zituen...	158
eginahalak eta bi egin ahalegin itzelak egin, asko saiatu	... eginahalak eta bi egin behar zituzten erosotasunik ezari aurre egiteko, baina bihotz ematen zien, bestalde, segurtasunaren sentipenak.	115
ehortzi lur eman, lurperatu	Gaizki ehortzitako en espirituak behin eta berriz itzultzen zirela esaten zen bere herrian.	177
elezahar legenda, kontakizun historikoa	Inola ere ez zetorren bat elezaharretan aipatutako izena zeraman gerrari ospetsuaren itxurarekin...	71
eltzeko lapikokoa, egosia	Eguerdi batean, barazki eltzeko guztiz gozo bat jaten ari zirela	237
elur-bisuts haizetea eta elur ekaitza	...orduana eta arrisku handiagoa haize ekaitzek eta elur-bisutsek harrapatuta ez aurrera ez atzera gelditzeke.	131
ematxar emagaldua, urdanga	Eta berehala baztertu zuen; emakume hura ematxar ziztrin bat besterik ez zen...	222
epelak esan errieta edo agiraka egin, itzelak	...galdutakoak aurkitu arte. Epelak esan zizkieten biei gurasoek, buruzagiek eta agureek.	129
eragotzi ez utzi, trabatu	...Amarik babestuko zuen, eta okerrik gerta zekien eragotziko zuen.	155
erantzi kendu	Instant batzuetan hura aztertu, kasketa erantzi , eta alboan zuen soldaduari eman zion.	65
erantzuki kexa, purrustada (<i>reproche</i>)	...eta prest zegoen inolako erantzukirik gabe bizia haren alde emateko.	260
erantzuki egin errieta egin, kargu hartu	Endarak adar artean desagertzen ikusi zuen, bat-batean bakarrik utzi zuela-eta harrituta, baina ez zion erantzuki egin .	18
erauntsi ekaitza	— Beren gudarostearen gainean erauntsia botatzen ari zinela eraso ziguten.	353
erresumin oinaze-amorru sentipen gordea	Xentok ez zuen hura ahaztu, eta erresuminak sustrai sakonak egin zituen bere baitan.	195
erreten ubidea, kanala, zanga	Orduan, ekialdera hartu zuten, beste erreten txiki bati jarraituz, zeinak eraman baitzuen paraje zabal batera...	340

errezelo mesfidantza	—Edan —esan zion, eta irribarre egin zuen, gazteak errezeloa zuela ikusirik—: ez kezkatu, ez dizu kalte egingo.	85
errieta egin agiraka egin, <i>bronka bota</i>	Zuk duzu erru guztia, emazte! — errieta egin zion Erheri, zeina esnatu baitzen haren oihuek izututa—.	169
etsipenezko desesperazioko, urragarria	Isil-isilik zegoen dena, eta are izugarriagoa zen isiltasun hura halako bihotz ikara eragin zioten etsipenezko oihuak baino.	16
euri langar zirimiria	Lanbro lodi batek estaltzen zuen Bigorrako lurra, eta euri langarrak bide guztiak lokaztuta zeukan.	24
ezin ibilizko ibilgaitza (<i>impracticable</i>)	...lurraldea ongi ezagutu gabe, ezin ibilizko ahuntz bide haietan barrena, bideak sei oin elur estalita egonik...	132
ezin iritsizko ailegatzina (<i>inaccessible</i>)	...munstroentzat ezin iritsizkoa izango zen toki baten bila.	171
ezpal xafla mehea, zati zapala	...Endara konturatu zen kea ez zetorrela lur azpitik, baizik eta harri ezpalez egindako teilatu baten zulotik.	203
fibula gerrikoaren belarria (<i>hebilla</i>)	...urrez eta harribitxiz egindako esku baten tamainako fibula batez lotu zion.	137
gainkatu estali (<i>zezenak behia</i>)	Baina behorrak itxaron egin beharko du, ezingo baitut osatu arte gainkatu! —bota zuen lotsagabe.	140
galaiz apaindu dotore jantzi	...areto nagusia oturuntzarako galaiz apaindu , eta tximinia guztiak piztuko zituzten...	125
gandor burgoia, harroputza / <i>leinu bat</i>	Inork ez zuen lortu haiek erabat azpiratzea; ezta [...] itsas portuak okupatu zituzten gandor ahaltsuek ere...	196
gantza gizentasuna, koipea (<i>sebo</i>)	Ikusiko dugu zer diozun, barbaro horietako batek zure behar bitxiz apainduak moztu eta gantzak ezpataz zulatzen dizkizunean.	39
gernu txiza	—Orain ekarri hona garagardoaren partez saltzen duten edabe horrengatik emandako txanponak, astemearen gernu beratua dirudi-eta.	75
gogaikarri jasanezina, aspergarria, astuna	...kilima gogaikarri batzuk sumatu zituen esku ahurretan...	167
golde lurra iraultzeko tresna	Bere herriko zaldiek garaiera txikia zuten, sendoak ziren goldeari tiratzeko eta bikainak borrokarako...	19
gontza ate erroa, euskarria	...gero atetzarra ireki zuen, mantso-mantso. Gontzen kurrinkak geldiarazi egin zuen, eta atzera begiratu zuen...	118
gopor katilukada	Erhek egurrezko gopor bat eman zion olo ahiz beterik, eta egur ogi zati bero bat.	59
gorpu hilotza, hildakoa	Gorpuak hartu eta herrira eramatera zihoala, ordea, ohartu zen alaba bizirik zela artean.	12
gortea egin ligatu	...lotsaz gorritu baitzen amak denen aurrean neskari gortea egitera animatu zuenean.	153
goseak amorratzen egon gosez hil beharrean	Eltzekari usainak gogorarazi zien goseak amorratzen zeudela...	204
gudaroste armada	Akerra aurrean jarri zitzaion, ahuntz taldeak bere amandrea inguratu zuen gudaroste baten antzera...	15
gurgurka zaratak egiten	...haragi usainak sudurara bete ziolarik, gurgurka hasi zitzaion sabela, urduri.	102
guri fina, delikatua	...lozorroan geratu zen oihal zakarreko burukoa besarkatuta, [...] bere gorputz biluzia garbitu berri zuen neskatila haren gorputz guria zela imajinatuz.	290
haragitsu mardula, potoloa	Emakume haragitsuak harro begiratzen zion, lan bikaina egin duenaren harrotasunaz.	289
harmonia egoki uztartuta	... harmonia onean bizi ziren bi espezieak...	164

harrapakatu arpilatu, sakeatu	...gizonak eta mutikoak hil; emakumeak eta neskatilak bortxatu, haiek ere hil aurretik; eta parean topatzen zuten oro harrapakatu .	24
harri eta zur harrituta, sor eta lor	... harri eta zur gelditu zen emakumea gizonen jantzia agertzen ikusirik, gizonen praka batzuk eta kapusaia jantzita...	223
hasi orduko hasi bezain laster / baino lehen	Mantso zihoazen, blai-blai, hotzak akabatzen; eta, eguna iluntzen hasi orduko , aterpea bilatu zuten.	147
hauspo haize emateko tresna	Lantegia pil-pilean zegoen, su guztiak piztuta, hauspoak indar batean puzka, errementarien mailuak burdina gorria kolpekatzen...	216
hazteritsu ezkabiatsua (<i>sarnoso</i>)	—Zakur zikin hazteritsuak —xuxurlatu zuen.	31
hebaindu birrindua, kolpe asko jasotakoa	Auskoaren gorputz hebainduak argi asko erakutsi zien lehengo lepotik burua egiteko asmoa zutela.	31
herratu alderrai dabilena, noraezean	...argi baino argiago ikusten zituen Izako biztanleek aipatutako espiritu herratuak .	159
hezueri hezurretako gaixotasuna	—Eta jakin al daiteke zergatik ez den etorri hona? — Hezueria du.	138
hezurkizko kutun hezur zatitxozko amuletoa	...muturrean hezurkizko kutunak , errekarriak eta berak antzeman ezin izan zien bestelako objektu batzuk zintzilikatuta zituena.	83
higuigarri nazkagarria	Freiak! Hona datoz, eta Buturra zorri higuigarri hori dute gidari!	373
hil-hurren hil zorian, laster hiltzeko	...une batez, distira berritu zitzaion haren begirada hil-hurrenari .	113
hornigai probisioa	Abereak eta negurako gordetako janari hornigaiak lapurtuko zizkieten, asko jota...	97
hotzak akabatzen hotzak hilik, izoztuta	Mantso zihoazen, blai-blai, hotzak akabatzen ; eta, eguna iluntzen hasi orduko, aterpea bilatu zuten.	147
hutsaren hurrengoia izan ezdeusa, guztiz baliogabea	...ez zaitzadala berriro nire bidean aurkitu, otsokume gaztea. Hutsaren hurrengoia zara zu niretzat.	68
ibilgu ubidea, ibaibidea	...ibaiaren bi ertzak hartzen zituen herria, gune hartan ibaiaren ibilgua zabalagoa bazen ere.	150
igitai belarra ebakitzeko esku tresna	...hodei beltz bat zuten buruaren gainean dilindan, igitaiaren forma hartuta batzuetan...	208
igurikipen espero dena, etorriko dena	...hark aukera eman zien denei [...] une batez ihes egiteko denek gogoan zerabilten igurikipen beldurgarri hari.	44
ikastun ikasi eta ikasi aritzen dena	...Attak ongi gogoan zeukan tarbeliar hura, zeinarekin igaro baitzuen negu osoa Elusan ikastun ...	30
ile xerlo ile sorta, bereziki kopeta aurrean	Suaren argitan, aurpegi adeitsu bat ikusi zuen kolore iluneko zapi batek inguratua, gaztaina koloreko ile xerloak agerian zituela.	180
intziri auhena, kexu oihua	Arrano izugarri bat [...] zuhaitzetan habia hartutako txorien txioa isilarazi zuen intziri batez.	22
inude hazama, besteen umeak eradoski	Endara inude batekin utzita, beste emakume batekin elkartu zen haren aita, eta seme-alaba gehiago izan zituen, baita alaba bat bazuela ahaztu ere.	12
irmo tinkoa, serioa	Aita bilatu zuen begiradaz, baina haren aurpegi irmoan ere ez zuen topatu laguntzarik.	14
irrikatu biziki desiratu	Gizakiek boterea irrikatzen zuten, jentilek omen zeukaten urrea; eta orobat bereganatu nahi zuten haien altxorrik preziatuena...	164
itsumustuka ikusi gabe, itsu-itsuan	Zoruan itsumustuka , Iarisa aurkitu zuen; batere konturik gabe lurrean botata utzi zuten.	352
itu diana	...arkua erabiltzen zuen, halako maisutasunaz, gai baitzen berrogeita hamar oineko distantziatik ere itua jotzeko.	213

itzaltsu ospe handikoa, errespetagarria	...agintaria ez ezik borrokalaria itzaltsua baitzen, bizia ematerainoko leialtasuna zion guardia bat zuen...	40
itzulinguru inguraketa, zeharkako bidea	...basoak zeharkatu zituzten eta hamaika itzulinguru egin behar izan zituzten bideko amildegi ugari haietako batean behera ez jausteko; ...	302
izotz burruntzi izotz kandela, kandalua (zintzili)	...beraiek ere almenetatik ikusten zirenen tankerako izotz burruntzi bihurtzeko arriskuaz.	118
izpirik gabe arrastorik gabe, pizarrik gabe	...lotsa izpirik gabe bere gorputz biluzia garbitu berri zuen neskatila haren gorputz guria zela imajinatuz.	290
jentil leiendako erraldoia	Errezeloz irribarre egin zuen Garrek, jentil errementari bati buruz hizketan hasi zitzaionean.	389
jostakin olgetun, jolasti	Emakumeak barre egin zuen, jostakin , eta Garrek arretaz aztertu zuen.	180
kalapita sesioa, errieta, eztabaida	Ez zegoen kalapitarako eta liskarrerako denborarik...	97
kamaina ohantzea, hosto edo galtzuzkoa	...lehen argi izpiak Iparraldeko Dorrea argitzen hasita zeudela, bere kamainatik atera, eta Ozen isilka atera zen [...] gelatik.	125
kamustuta zorrotasunik gabe, dorpe	Esnatu zenean, kamustuta zuen gogoia, eta lehor ahoa.	51
kapusai euritik babesteko kapa	...harri eta zur gelditu zen emakumea gizonez jantzia agertzen ikusirik, gizonezko praka batzuk eta kapusaia jantzita...	223
karranka beleen oihua / zarata bizi (metal)	...baina bazuen zerbait bitxia toki hark: isiltasuna, isiltasun artetegarri bat. Ez zen aditzen hegaztien karrankarik ere...	253
karraska burrunba, zalaparta	Hantxe jaio zen Endara, gaueko hegaztien uluak eta naturaren karraskak lagun zituela...	11
kazkabar txingorra, inatazia	Zelatan egoten da eta kazkabarra botatzen du bere herriarekin haserretzen denean.	95
kikilduta beldurtuta, mekotuta	Erdi kikilduta saihestu zituen gorpuak garai batean artzain izandakoak.	177
kirika ezkutuan begiratu	Geruka txikia, berriz, etzaleku modura erabiltzen zituzten lasto fardelen atzean ezkutatuta zegoen, fardelen atzetik kirika .	28
kisketa irekitzeko-ixteko mekanismoa	...ez bazen haizeak astindutako kisketa baten hotsa.	119
kliskatu keinu egin / begiak itxi-ireki	Itzultzen zarenean, hementxe izango gaituzu zain, semea eta biok! –esan zion etxeoandreak, begia kliskatuz .	153
krakatsu ugerdoa, zoldatsua, zikin-zikina	...seme –erantzun zuen Erhek, bere abarka krakatsu zulatuak seinalatuz–.	99
kriseilu lanparatxo (oliozkoa)	Kriseilu bat bilatu zuen, zuzi bat, zuloren bat sabaian, toki hura argi zezakeen zerbait.	371
kuria taldea, segizioa	baina, zurrumurruen arabera, denetik dute ugazabaren kurian , eta ez dute elikagairik falta ez ugazabak ez haren aginte taldekoek.	385
kurrika trukesa, tenaza	Bere burua ikusi zuen erraldoiaren kurrikak itota, airean dilindan zerabilela, panpina baten modura...	163
laido iraina, ofentsa	...damutu ere egin zen neska hura eman izanaz, txera baitzion; egunen batean laido hura ordainaraziko ziola zin egin zuen.	246
lain beste, adina	Otso-babaz pozoitutako ardoa eman zion edatera, eta esan zion, gainera, ez zela berehala hilko, oso pozoiz gutxi bota ziolako, odola pozoitzeko lain soilik.	229
lainoa saretu zerua garbitu, hodeiak desagertu	Lainoa ez zen saretu , ezta zirimiria atertu ere.	27
lanabes tresna	Nekez irekiko zuten ate hura kanpotik, lanabes egokirik ezean.	383

lanbro lainoa	Lanbro lodi batek estaltzen zuen Bigorrako lurra, eta euri langarrak bide guztiak lokaztuta zeukan.	24
lantegi zeregina, egitekoa	...baina ez zen batere lantegi erraza berea bezain gudaroste handia mugitzea...	131
lastaira matalaza, koltxoia	Egurrezko txabola batean zegoen, belar lehorrezko lastaira baten gainean...	51
lasto fardel bala, pilo prentsatura	Geruka txikia, berriz, etzaleku modura erabiltzen zituzten lasto fardelen atzean ezkutatuta zegoen, fardelen atzetik kirika.	28
lasto-azao gari edo landareen sorta	Igarik ez zuen neskatilaren alboan gehiago lo egin, trabarik ez egiteko, eta txoko bat bilatu zuen mandioan, lasto-azao , landare eta hosto lehorren artean.	237
lauhazka lauoinka, galopan	...baina, harengana iristear zela, animaliak burua jaso, adarraren gainetik jauzi egin, eta lauhazka handian alde egin zuen, izaturik.	33
lausotu difuminatu,	... lausotzen hasia zen ezeren eta inoren alde borroka egiteko erabaki irmo hura, eguzki egun batean lainoa nola.	176
lazgarri izugarria, ikaragarria	...baina zin egin zuen ez zuela ikuskizun lazgarri hura sekula ahaztuko...	17
legendun legena duena <i>leproso</i>	— Nork? — Unmarilun Elanoa urdekume legendunaren gizonek.	181
lehengo lepotik burua egin asmoari tinko eutsi	Auskoaren gorputz hebainduak argi asko erakutsi zien lehengo lepotik burua egiteko asmoa zutela.	31
lepazuri ugaztun haragijale txiki (<i>garduña</i>)	...hala ere, lepazuriak , azkonarrak eta basurderen bat besterik ez zuten harrapatzen gehienetan.	47
letania otoitz antzekoa, eskari jarraitua	Amuna begira-begira zuen, letania bitxi hura xuxurlatzeari utzi gabe...	85
logaleak amorratzen egon oso logura izan	Mutila logaleak amorratzen zegoen.	42
lokaztu basaz betea	Gero barrez hasi ziren, izaki lokaztu hura beren iloba eta lehengusua zela konturatuta.	40
losintxari lausengaria (laudorio falts egilea)	...eta beti lortzen zuen nahi zuena. Losintxaria halakoa!	78
lozorro lo sakona	Itxuraz, neguko lozorrotik esnatzen ari zen, eta jeneralak bere soldaduak trebatzeko baliatzen zituen herrien kontrako erasoaldi haiek...	213
mandio lastategia, belarretarako ganbara	Igarik ez zuen neskatilaren alboan gehiago lo egin, trabarik ez egiteko, eta txoko bat bilatu zuen mandioan , lasto-azao, landare eta hosto lehorren artean.	237
men egin esana egin, obeditu	— Esan dizut, ba: nire aginduei men egitea , hau da, Gontran nire jaunaren aginduei men egitea.	67
mihia klaskatu mihia irentsi bezala	...halaxe zegoen, bai, baina konturatu zen arrautzaren oskolak pitzadura txiki bat zuela, eta mihia klaskatu zuen.	463
mimetizatu inguruaren itxura hartu	...etxeek euskarri zuten harkaitzarekin mimetizaturik arrats eguzkitsuetan.	271
mintz azal fina	...oin bakoitzean ahate eta antzarek bezala mintzez lotutako lau behatz zituzten...	21
morroi zerbitzaria	...ez naiz inoren morroi izango, are gutxiago inbaditzailearen zerbitzura aberastu den sasiko batena.	250
muino mendi gaina, zapal antzekoa	Hiri Garaia, muino baten gainean eraikia, guztiz birrindua zegoen...	62
mukizu umemokoa, umegorria	...eta nazkatzen hasita zegoen aitak mukizu bat bezala tratatzen zuela-eta.	26
mukuru goraino, erabat, gainezka	...koloretako lorez mukuru beteriko lorategia	70

murgilaldi pulunpa, uretan sartzea	Are gehiago, murgilaldia baltsamu bikaina izan zen: orkatilako mina kendu zion...	21
muturrez aurrera ahuspez, ahoz behera	Mazoez mahai hutsa jo zuten, ordea, eta bitan zatitu zutelarik, muturrez aurrera erori ziren erasotzaileak lurrera.	74
non ez gaituzten ez baldin bagaituzte	Hotzak hilko gara, non ez gaituzten animalia basatiek jaten!	154
nonbait antza, itxuraz	Bi gizon haiek ez zuten bera hiltzeko asmorik, nonbait ; hala balitz, hilko zuten ordurako.	104
ñimiño txiki-txikia	Hainbestearino, erraldoia bera izaki ñimiño baten antzera ageri zen.	261
oilaloka txitadun oiloa, geldigaitza	...eta gogora zaitzte berataz, txingor pixka batengatik oilalokak bezala ihes egiten duzuen hurrengoan.	354
oilo bustiak koldarrak halakoak	Oilo bustiak! Ez dute inbaditzaileei aurre egiteko potrorrik!	59
okitu gogobetea, erabat aseta dagoena	...gerrari nekatu eta erdi lokartuak zahar okitu talde bat bezain alferrekoak izango ziren gerrarako.	458
oldartu eraso egin	...baina ez zuen oldartu beharrik izan laster erditzekoa zena zaintzen ari zen emakumezkoen gudaroste haren kontra...	217
olo landare jangarria (<i>avena</i>)	Erhek egurrezko gopor bat eman zion olo ahiz beterik, eta egur ogi zati bero bat.	59
oneratu suspertu, hobera egin	Denbora behar izan zuen oneratzeko . Noizean behin, lozorrotik esnatu eta Arakaren izena oihukatzen zuen...	288
orbain ebakiondoa (<i>cicatriz</i>)	— Orbaina geldituko zaio, baina ez da asko nabarituko —esan zuen Ernhek, bere lanaz harro.	29
ordainetan trukean	Leskarreko biarnotarren buruzagi Zeianek, larreak erabiltzen uzteaz gainera, arrebak eman behar izan zion, Attari hil zizkion bi gizonen ordainetan .	25
orobat era berean, baita, berdin	Gizakiek boterea irrikatzen zuten, jentilek omen zeukaten urrea; eta orobat bereganatu nahi zuten haien altxorrik preziatuena...	164
osatu sendatu	Baina behorrak itxaron egin beharko du, ezingo baitut osatu arte gaintatu! —bota zuen lotsagabe.	140
osin hobia, zuloa	...Lurraren muinerako heltzen ziren osinak , eta ez zuen haietako batera jausi nahi.	261
oskarbi zohardia, zeru garbia	...baina zuhaitzetako hostoak ere ez ziren mugitzen udaberriko egun oskarbi hartan.	433
ostertz zeru muga, horizontea	...zaldi gainean lauhazka, mendi aldera, ostertzeko silueta erraldoietara.	76
oturuntza otordua, jatordua	...ez zuen ezertxo ere jan eta edan zenduaren ohorez antolatutako oturuntzan ...	219
otzandu mantsotu, baretu	...irrika batekin gozatu zuen emakume harekin, baina ez zuen lortu otzantzerik , gogotik saiatu bazen ere...	134
palasta plastakoa, uretan emandako kolp	...eta uretan hondoratu zuten, palasta eta intziri artean.	50
pattar likorea	...esan zuen gizonak, eraztunez apaindutako behatz erakuslearekin zerbitzari keinu bat egiten zion bitartean, kopakada bat pattar zerbitza ziezaion.	38
patu asturua, zoria	...hantxe zeutzan beren asabak, haietako inork pentsatuko zuen baino lurralde handiago batean, hizkuntzak, usadioek, historiak eta patuak batuta...	418
pegar buztinezko ontzi hand, txanbila	Ur trago eder bat ere egin zuen, berak pegarra seinatu zuenean beste gizonak eman zion ontzitik.	104
perrail baldea, uhoitza	...ikusi zuen nola jasotzen zuen sagardo upel baten neurriko burdinazko eltze bat egurrezko perraila balitz bezain arin...	207

peto erabatekoa, oso-oso	Ez zara umetxoa, gizon petoa zara! Eta gizon modura jokatu behar duzu!	214
pil-pilean bizi-bizi, mugimenduan	Lantegia pil-pilean zegoen, su guztiak piztuta, hauspoak indar batean puzka, errementarien mailuak burdina gorria kolpekatzen, ...	216
piltzartu sats eginda, birrinduta, zati-zati	...odolez zituen aurpegia eta ilea; zaurituta eskuin masaila, azpil brodatuz apaindutako oihal bikainezko atorra ugerdo; prakak piltzartuta .	37
pitxerra buztinez, kristalez edo bestelako	Bi gizonak elkarri begiratu, irribarre egin eta pitxerrak jaso zituzten.	197
pitadura arrakalla, arraildura	...halaxe zegoen, bai, baina konturatu zen arrautzaren oskolak pitadura txiki bat zuela, eta mihia klaskatu zuen.	463
pronto prest	...jakinarazi Zeian osabari freiak gerrarako pronto direla berriro ere, eta datozela hona.	31
putre saia, hegazti haratustel jalea	...eta ehortzi gabe utzi genituen haien gorpuak, putreen bazkarako.	195
samin tristura	...zerura jaso zituen besoak, ukabilak itxita eta masailezurak estuturik, saminezko oihua itotzeko ahalegin etsian.	12
sarkin <i>intruso</i>	... sarkinak ezustekoan harrapatu zituen bi dohakabe berehalakoan exekutarazi zituen.	408
sarraskitu masakratu	Ilargia gorritu egin zen haurra jaio zen gauean, eta hura izan zen Enda Lur sarraskituko zuten hondamenen iragarle.	11
sasiko ezkontzaz kanpoko umea	...ez naiz inoren morroi izango, are gutxiago inbaditzailearen zerbitzura aberastu den sasiko batena.	250
sigi-saga zeharka-meharka, zig-zag eran	Harkaitz artean sigi-sagan jaisten zen errekastoko ura mantso-mantso zihoan...	254
simaur onddo haluzinogenoa	...baina zorabiatuta zegoen eta ikuskariak ikusten hasi zen, simaur onddoak jan ondoren bezala.	371
soraio sorgor (<i>insensible</i>)	Biarnotarrak ebaki bat egin zuen ezker sorbaldan, eta soraio eusten zion minari.	484
sorgortuta ezinduta, paralizatuta	Endara sorgortuta zegoen artean, zer gertatu zen ulertu ezinik.	50
sugegorri suge mota (<i>vibora</i>)	Neronek moztuko dizut sugegorri mizto hori!	377
suhar gartsua, oldarkorra (<i>impetuoso</i>)	—Hori da! Beti atsegin izan ditut emakume suharrak —esan zion belarrira xuxurlaka...	49
sumin amorrua, haserrea	Attak ez zuen oihurik egin, baina suminez dizdiz zuen begirada...	32
tarteka-marteka txitean-pitean, aldizka	Tarteka-marteka , bordaren bateko tximiniako kea ikusten zuten...	76
terreina ontzi mota, <i>balde</i>	Errementariak lana amaitutzat eman zuenean, kurrikekin hartu eta ur terreina batean sartu zuen.	166
titan indar itzeleko gizakia	Hasieran orro batzuk eginda, bi herensugeek buruz buru ekin zioten borrikari: hegala zabalik, titanen arteko heriotzarainoko borroka batean sartu ziren.	268
topaketa elkarretaratzea, bilera, enkontrua	...Arbil ugazabaren deiaren aurretik Attak antolatutako topaketa gogoan zuela.	349
tranpal eskailera burua (<i>rellano</i>)	...horrek asko harritu zituen Endara eta haren laguna, ziur baitzeuden tranpalean ez zela beste aterik.	238
trebera hiru hankako euskarri altua, suk	...nola jartzen zuen atsoak buztinezko eltzetxo bat trebera baten gainean, urez beterik...	84
triki-traka mugimendu et soinu errepikatua	Orgaren triki-trakak akitu egin zituen azkenerako, eta bata bestearen besoen artean erdi lotan egin zuten bidaiaren parte handiena.	361

tripa-zorri gose bizia	Halaxe zeuden, eta txingarretan frijitzen ari ziren urdaiak eta arrautzek areagotu egin zizkieten tripa-zorriak .	205
trumiltsu parrastan, oldarrean	...nola eraikinen artetik igarotzen zen ibai baten ur trumiltsuen gainean jasoak.	42
ttuntun danbolina	...txistuaren eta ttuntunaren erritmoan dantzan egin zuten...	154
turrusta parrastada, txorrotada	...malko turrusta bat, ur berde eta urdin gardenezko putzu batera jausten zena...	20
txera izan kariñoa izan, afektua	...damutu ere egin zen neska hura eman izanaz, txera baitzion; egunen batean laido hura ordainaraziko ziola zin egin zuen.	246
txingar egur zati goria	Halaxe zeuden, eta txingarretan frijitzen ari ziren urdaiak eta arrautzek areagotu egin zizkieten tripa-zorriak	205
txintik ez ezertxo ere esan gabe	...soldadua txintik atera gabe jausi zen.	407
txio txorien kantua	...pareta harkaitzsuaren gainetik, zuhaitzetan habia hartutako txorien txioa isilarazi zuen intziri batez.	22
txirbil txirlora, ezpaltxo kiribilak	...haurrak batetik bestera korrika ibiltzen ziren burdin eta egur txirbilak biltzen eta ahal zuten guztian laguntzen.	212
txirikordatu trentzatua	...bizar motzeko gizonak eta ile txirikordatu eta belarritako luzeekiko emakumeak...	30
txolinduta piripi, kokolotuta	Ez dabil aberastasun bila; badu nahikoa –erantzun zuen duxak, edariarekin txolinduta bera ere.	197
ufada putzaldia	...haize ufada bat sumatzen zuen, urmaelean bi gizonak hil zituzten izakien hats izoztuaren antzekoa.	159
ugerdo zikin-zikin	...odolez zituen aurpegia eta ilea; zaurituta eskuin masaila, azpil brodatuz apaindutako oihal bikainezko atorra ugerdo ; prakak piltzartuta.	37
ulu alaraua, oihu zolia	Halako mina sentitu zuen gizonak, ulu egin eta konortea galdu baitzuen bat-batean.	29
ur harri uharria, legarra	...jarraian, ur harri bat hartu eta pieza leuntzen hasi zen.	166
urmael estankea, ur putzua	...haize ufada bat sumatzen zuen, urmaelean bi gizonak hil zituzten izakien hats izoztuaren antzekoa.	159
urtzaro elurte sasoi amaiera	...beste behin ere, zer demontre ari ote ziren han, noiz eta urtzaroaren hasiera-hasieran.	254
uxatu aienatu, aldenarazi	...kezkek uxatzen lagunduko zien gauzaren bat.	411
uzkur kikilduta	...erantzun zuen neskatxak apur bat uzkur.	398
uzkur-uzkur egin batu-batuta jarri	...bera hiltzera joana, eta uzkur-uzkur egin zen, lehen kolpea noiz jasoko.	15
uztapiku pikua	...Endarak beti topatzen zuen zer jan –baiak, urrak, uztapikuak , masustak–; bere gidariak, ordea, ez zuen mokadurik ere jaten.	18
xalo-xalo inozente, apalki	—Ze ate? –galdetu zuen Endarak, xalo-xalo .	82
xaxatu akuilatu, zerbait egitera bultzatu	...belaunekin estutzen zuen zaldia, ahal zuen bezain bizkor joateko oihuekin xaxatzearekin batera.	57
xingol zinta	...eta koloretako xingolez apaintzen zuten, eta haren inguruan dantzan eta kantuan aritzen ziren egun eta gau osoz.	409
xuxurlatu ahapeka, isilean	Ituran elkarrekin lo egin zuten, eta hizketan jardun zuten, xuxurlaka , Igarik eta Garrek errezelaren aldetik entzun ez zintzaten.	353

zakar latza, lakarra	...lozorroan geratu zen oihal zakarreko burukoa besarkatuta...	290
zamalkaldi zaldi gaineko saioa	Leher eginda zeuden lhabar eta zaldia, biak, zamalkaldi gogor haren ondoren.	58
zango trabaka tupust eraginez	Araka haitzulotik irten zen, larruzko zamarra janzten, hildakoetako bati kendutako ezpatarekin zango trabaka .	177
zapelatz hegazti harraparia, gabiraua	Haren zapelatz begiek emakume bati eta besteari begiratu zieten, txandaka, arreta biziz.	354
zarakar (odol) geruza gogortu lohia	...pattarik onenetik ontza edia zauriari bota, haren inguruan sortzen hasia zen zarakarra karraskatu, eta barra bat sutan gori-gori jarri zuen.	29
zedarritu mugatu	...oihanaren eta Ilene Mendiak zedarritzen zituzten lehen gailurren gainetik hegan ikusi zuen bere burua...	160
zendu hildakoa	...ez zuen ezertxo ere jan eta edan zenduaren ohorez antolatutako oturuntzan...	219
zentzagarri jokabidea zuzentzekoa, zigor gis	...herriz herri erakutsi zituen beren gorpuak [...] freien agintearen kontra altxatzea bururatzen zitzaionaren zentzagarri .	133
zeutzan lurperatuta zeuden	...hantxe zeutzan beren asabak, haietako inork pentsatuko zuen baino lurralde handiago batean, hizkuntzak, usadioek, historiak eta patuak batuta...	418
zirimola zurrunbiloa, airea biribilean	...adarrak eta hostoak eramaten dituen haize zirimola batek bezala...	88
zirkinik ez mugimendu txikiena ere ez	...baina animaliak ez zuen zirkinik egin.	33
zirta hots txipli-txapla, txinparta hotsa	Instant batez, tximinian erretzen ari ziren enborren zirta hotsa baizik ez zen aditu aretoan.	198
zoldatsu ugerdo, txerri-txerri	Zoldatsu zegoen, sekulako kiratsa zerion, eta odol eta ardo orbanek zikin zituen kastor larru bikainez egindako galtzak eta zamarra.	109
zuhurtziaz zuhurtasunez	... itxuraz hain ahula, gai izango ote zen orain zuen indar ezohikoa behar adinako zuhurtziaz baliatzeko.	236
zurda zaldi lepoko ile latz luzeak	...hanka luzeak zituen, eta zurda zoragarriak, haizearekin dantzan.	19
zuzi tortxa, lastargia	Zuzi erraldoi bihurtuta zeuden lehen zeruraino heltzen ziren dorre-orratzak...	35